**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK DEITUTAKO LEHIAKETAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN ETA KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA, PROZEDURA IREKIAZ ESLEITZEARI BEGIRA, GILTZA ESKUAN ERAKOA, HONAKO KONTRATU HAU: EKIPO ELEKTROGENO (GE) BAT, ETENGABEKO ELIKATZE SISTEMA (SAI) BAT, EKIPO OSAGARRIAK ETA KANALIZAZIO ELEKTRIKOAK HORNITU, JARRI, MUNTATU, ABIARAZI ETA MANTENTZE PREDIKTIBOA ETA PREBENTIBOA; BAITA LEGALIZATZEKO PROIEKTUAK IDAZTEA, OBRA ZUZENDARITZA ETA DAGOZKION BISATUAK, CIC ENERGIGUNEN, ARABAKO MIÑANOKO PARKE TEKNOLOGIKOAN**

**ESPEDIENTE ZENB.:**

ERPI/13/011-A

PROZEDURA IREKIAZ

Bilbon, 2013ko urriaren 15ean
Pilar Urruticoechea Uriarte and..
EEEko kontseilari-zuzendari nagusia

**ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEAK DEITUTAKO LEHIAKETAREN ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN ETA KLAUSULA ADMINISTRATIBO BEREZIEN PLEGUA, PROZEDURA IREKIAZ ESLEITZEARI BEGIRA, GILTZA ESKUAN ERAKOA, HONAKO KONTRATU HAU: EKIPO ELEKTROGENO (GE) BAT, ETENGABEKO ELIKATZE SISTEMA (SAI) BAT, EKIPO OSAGARRIAK ETA KANALIZAZIO ELEKTRIKOAK HORNITU, JARRI, MUNTATU, ABIARAZI ETA MANTENTZE PREDIKTIBOA ETA PREBENTIBOA; BAITA LEGALIZATZEKO PROIEKTUAK IDAZTEA, OBRA ZUZENDARITZA ETA DAGOZKION BISATUAK, CIC ENERGIGUNEN, ARABAKO MIÑANOKO PARKE TEKNOLOGIKOAN**

**ADJUDIKATZEKO ERA:** Lehiaketa irekia.
**ESPEDIENTE ZENB.:** ERPI//13/011-A

## A. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATATZAILEAREN PROFILA

Energiaren Euskal Erakundea (EEE), honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo. Bizkaia (Espainia).

- Pertsona arduraduna, teknikaria: Jesús Maria Casado
- I.F.Z.: Q-5150001 E
- Telefonoa/faxa/posta elektronikoa: 94-403.56.56 / 94-403.56.99 / jmcasado@eve.es
- Kontratatzailearen profila: www.eve.es

## B. APLIKAGARRIA DEN ARAUBIDE JURIDIKOA

- Arautze armonizatuaren araberako kontratua: Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bateginaren ("SPKLTB") 189. artikulua eta dagozkionak.
- Kontratu honen prestaketa eta esleipenaren inguruan sor litezkeen arazoak edo auziak bideratzea eta konpontzea auzi administraziorekiko jurisdikzioari dagozkio (SPKLen 21. artikulua).
- Kontratu hau interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeko eskuduna jurisdikzio zibila izango da, eta bi aldeak, EEE eta kontratista esleipenduna, borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroei.

## C. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua hauxe da: ekipo elektrogeno (GE) bat, etengabeko elikatze sistema (SAI) bat, ekipo osagarriak eta kanalizazio elektrikoak hornitu, jarri, muntatu, abiarazi eta mantentze prediktiboa eta prebentiboa bi urteko epean egitea, giltza eskuan erakoa; baita legalizatzeko proiektuak idaztea, obra zuzendaritza eta dagozkion bisatuak CIC energiGUNEn, Arabako Miñanoko Parke Teknologikoan.

## D. GAUZATZEKO EPEA

Kontratu honen xedea diren instalazioak egin eta eman behar zaizkio EEEri hogeita hamaika (31) asteko gehieneko epean, zuinkatze-akta sinatzen den egunetik kontatzen hasita. Era berean, emango den instalazioaren mantentze prebentiboa egingo da 2 urteko epean, behin betiko zuinkatze-akta sinatzen den egunetik kontatzen hasita.

## E. KONTRATUAREN GEHIENEKO PREZIOA ETA AURREIUSITAKO BALIOA

Gehieneko prezioa: 495.000 € (BEZik gabe)
Aurreikusitako balioa: 495.000 € (BEZik gabe)

Mantentze prediktiboa eta prebentiboaren gehieneko prezioa ez da 2.000 euro/urteko baino gehiago izango.

Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaintza guztiak baztertu egingo dira.

## F. IZAPIDEA ETA PLEGUAK ESKURATZEKO BIDEA

- Ohiko izapidea.
- EEEren Kontratatzailearen Profila (www.eve.es).

**G. PROPOSAMENAK JASOTZEKO AZKEN EGUNA**
Eskaintzak edo proposamenak 2013ko abenduaren 10eko 12:00ak arte jasoko dira.

**H. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA**
Proposamenak, honako helbide honetan aurkeztuko dira: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

**I. BEHIN-BEHINEKO BERMEA**
Kontratuaren gehieneko prezioaren ehuneko hiruaren (%3) zenbateko baliokidea izango da (BEZik gabe).

**J. BEHIN BETIKO BERMEA**
Kontratuaren prezioaren ehuneko bosta (%5) izango den zenbatekoa (BEZik gabe).

**K. HORNIDURAREN GUTXIENEKO BERMEAREN EPEA**
Bi (2) urteko gutxieneko bermearen epea ezartzen zaio hornidura multzoari, behin betiko hartze egunetik kontatzen hasita.

**L. PREZIOEN BERRIKUSPENA**
Ez dagokio.

**M. PUBLIZITATEAREN GASTUAK**
Ez dagokio.

**N. ALDAGAIEN ONARPENA**
Ez dagokio.

**O. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA**
Plegu honetako 2.5.1 (vi) eta (vii) klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

**P. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK**
Esleipena erabakitzeko erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

| B GUTUN-AZALA - FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEAK | | |
|---|---|---|
| **Irizpidea** | **Deskribapena** | **Puntuak** |
| **1** | Memoria teknikoaren zehaztasuna eta ekipoen definizioa<br>Mantentze prebentiboa | **25** |
| **2** | Planifikazioaren koherentzia eta zehaztasuna | **10** |
| **3** | Proposatzen den taldearen lanaldia eta egokitasuna | **5** |
| **C GUTUN-AZALA - FORMULEN BIDEZ EBALUATU AHAL DIREN IRIZPIDEAK** | | |
| **Irizpidea** | **Deskribapena** | **Puntuak** |
| **4** | Bermea | **5** |
| **5** | Prezioa | **55** |
| **GUZTIRA** | | **100** |

Bermeari eta prezioari dagozkion irizpideak balioesteko, honako formula hauen arabera egingo dira:

**Bermea**

Gehienez 5 puntu, 100 puntu artean

Gutxieneko berme aldia eskainiko duen lizitatzaileak (2 urte, hartzearen ondoren) puntu bat jasoko du, eta eskainiko duen urte gehigarri bakoitzeko bi puntu emango zaizkio, gehienez 5 punturaino.

**Prezioa**

Gehienez 55 puntu, 100 puntu artean

$$\text{Liz.aren puntuak} = \frac{\text{Eskaintza onenaren prezioa}}{\text{Lizitatzailearen puntuak}} \times 55 \text{ puntu}$$

**Q. ZIGORTZEA**

Plegu honetan aurreikusten direnak.

**R. LUZAPENA**

Ez dagokio.

**S. LANAK ZATIKA JASOTZEA**

Honako mugarri hauek adierazten dira:

1. Obra zibilaren proiektua egiteko behar diren eskakizunak idaztea (2 aste natural, zuinkatze-akta sinatzen den egunetik kontatzen hasita).
2. Proiektua idaztea, lanari ekiteko behar diren baimenak eta izapideak egitea (6 aste natural, zuinkatze-akta sinatzen den egunetik kontatzen hasita).
3. Ekipo elektrogenoa metatzea (23 aste natural, zuinkatze-akta sinatzen den egunetik kontatzen hasita).
4. Etengabeko elikatze sistema metatzea (23 aste natural, zuinkatze-akta sinatzen den egunetik kontatzen hasita).
5. Instalazioa gauzatzea metatzea (31 aste natural, zuinkatze-akta sinatzen den egunetik kontatzen hasita).
   a. Jasotako elementuen instalazioa.
   b. Koadro elektrikoen hornidura eta muntaketa.
   c. Eroaleak (CEP eta kableak), potentzia-konexioak.
   d. Dauden koadroen aldaketa.
   e. Probak, abian jartzea eta legalizatzeko dokumentazioa.
   f. Proiektu amaitua.

**T. PREZIOAREN ORDAINKETA**

Hornitu, jarri, muntatu eta abiarazteko lanen ordainketak honako modu honetan egingo dira:

- Guztizko prezioaren %5, zuinkatze-akta sinatu ondoren.
- Guztizko prezioaren %5, obra zibilaren proiektua egiteko behar diren eskakizunak idatzi ondoren.
- Guztizko prezioaren %20, proiektua idatzi, lanari ekiteko behar diren baimenak eta izapideak egin eta EEEri eman ondoren.
- Guztizko prezioaren %30, ekipo elektrogenoa eta SAI metatu ondoren.
- Guztizko prezioaren %40, instalazioa hornitu, jarri, muntatu eta abiarazi ondoren.

Urteko mantentze prebentiboa ordaintzeko, enpresa esleipendunak faktura bakar bat egingo du, eskaintzan adierazitako urteko zenbatekoa izango duena, aipatutako aldia igaro eta gero.

Zatikako ordainketa horietako bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak modu egokian Erakunde Kontratatzaileari dagokion faktura ematen eta azken horrek onartzen duen egunetik kontatzen hasita.

**U. HIZKUNTZA BALDINTZAK**

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu esklusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

**V. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA**

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBE sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Horrela, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundean aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa.; bestak beste, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunaz diharduena, martxoaren 22ko 3/2007 Lege organikoa, Gizon eta Emakumeen arteko Benetako Berdintasuna lortzeari buruzkoa den legea, hain zuzen ere.

**W. FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU EZIN DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA (B GUTUN AZALA) JENDAURREAN ZABALTZEKO LEKUA, EGUNA ETA ORDUA**

Plegu honetako karatularen **A Atalean** adierazten den EEEren bulegoan. Eguna eta ordua lizitatzaileei jakinaraziko zaizkie, haiek jakinarazpenak jasotzeko emango duten fax zenbakira bidaliz eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

**X. FORMULA BIDEZ KUANTIFIKATU AHAL DIREN IRIZPIDEEI LOTUTAKO DOKUMENTAZIOA (C GUTUN AZALA) JENDAURREAN ZABALTZEKO LEKUA, EGUNA ETA ORDUA**

Plegu honetako karatularen **A Atalean** adierazten den EEEren bulegoan. Eguna eta ordua lizitatzaileei jakinaraziko zaizkie, haiek jakinarazpenak jasotzeko emango duten fax zenbakira bidaliz eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

**Y. HELEGITE BEREZIA KONTRATAZIO GAIETAN**

Helegite berezia jar daiteke kontratazio gaietan, baldin eta kontratua erregulazio armonizatuaren arabera eratu bada, honako kasu hauetan: esleipenerako hartutako akordioak, lizitaziorako iragarkia, lizitazioa arautzen duten pleguak eta zerbitzua edo prestazioa emateko ezaugarriak ezartzen dituztenak, eta aurrekarietako prozeduran gauzatutako egitateak edo ekintzak, azken horiek eragin zuzena edo zeharkakoa badute esleipenean, prozedura jarraitzeko eragozten badute edo bidezko eskubide eta interesei babesgabetasuna edo kalte konponezina eragiten badizkiete.

Aipatuta helegitea bideratzeko, SPKLTBen xedatzen dena beteko da. Helegitearen ebazpenaren kontra auzi administraziorekiko helegitea baino ezin da jarri, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak dioenari jarraiki, Auzi Administraziorekiko Jurisdikzioa arautzen duena.

## 1. XEDAPEN OROKORRAK

### 1.1. Erakunde kontratatzailea

Erakunde kontratatzailea (aurrerantzean **"Erakunde Kontratatzailea**") Plegu honetako karatularen **A Atalean** adierazten da; eta haren datuak, helbidea eta telefonoa atal horretan ere azaltzen dira.

### 1.2. Kontratuaren araubide juridikoa

Lizitazio honen kontratuak izaera pribatua du. Kontratuaren prestatze eta esleitzeari dagokionez, administrazio klausula berezien plegu honetako **B Atalean** adierazten dena beteko da. Kontratuaren betetze eta deuseztatzeari dagokion araubidea zuzenbide pribatuarena izango da.

Kontratu honen inguruan sor daitezkeen auziak erabakitzeko eskudunak karatulako **B Atalean** adierazten dena kontuan hartuko da.

### 1.3. Kontratuaren helburua

Kontratuaren helburua hauxe da: ekipo elektrogeno (GE) bat, etengabeko elikatze sistema (SAI) bat, ekipo osagarriak eta kanalizazio elektrikoak hornitu, jarri, muntatu, abiarazi eta mantentze prediktiboa eta prebentiboa bi urteko epean egitea, giltza eskuan erakoa; baita legalizatzeko proiektuak idaztea,, obra zuzendaritza eta dagozkion bisatuak CIC energiGUNEn, Arabako Miñanoko Parke Teknologikoan. karatulako **C Atalean** adierazten den bezala.

### 1.4. Gehieneko prezioa, aurreikusitako balioa eta kontratuaren prezioa

Gehieneko prezioa eta aurreikusitako balioa Plegu honen karatulako **E Atalean** zehazten direnak izango dira.

Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa. Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz Erakunde Kontratatzailea ez ditu ordainduko**, I. eranskinean** ageri den Baldintza Teknikoen Txostenaren arabera.

### 1.5. Prezioen berrikustea

Prezioen berrikusketari dagokionez, karatulako **L Atalean** agertzen dena aplikatuko da; bertan azalduko baita berrikusi behar diren, eta hala baldin bada, formula aplikagarria.

### 1.6. Kontratuaren gehieneko iraupena

Plegu honetako karatulan dagoen **D Atalean** zehazten da lanak egiteko gehieneko epea. Nolanahi ere, lizitatzaileek egingo dituzten proposamenetan lanak egiteko epearen murrizketa finkatu dezakete, **P Atalean** adierazten diren balioztatzeko irizpideen arabera balioztatuko direna.

Karatulako **R Atalean** hala jasotzen bada, kontratua luza daiteke, hasierako aldiarekin ezberdina izango duen epe batez, prestazio berberak emateko. Egiteko epea kontratazio organoak erabakiko du eta esleipendunak bete beharko du.

### 1.7. Zehaztapen teknikoak eta informazio gehigarria

Plegu honetan eta Zehaztapen Teknikoen Txostenean, honekin batera doan **I. eranskinean** azaltzen direnak, adierazten den moduan egingo dira kontratu honi lotutako lanak.

Aipatutako eranskinean ere kontratu honen xedeari lotutako informazio gehigarria adierazten da.

## 2. LIZITAZIOAREN KLAUSULA BEREZIAK

### 2.1. Adjudikatzeko era eta izapidea
Kontratua adjudikatzeko era prozedura irekiaz izango da, eta prozedura Plegu honen karatulako **F Atalean** adierazitako eran egingo da izapidea eta beste bideratze batzuk, karatulako atal horretan zehazten diren moduan.

### 2.2. Lehiaketaren dokumentazioa eta informazioa
Plegu honen karatulako **F Atalean** adierazitako lekuan kontsultatu ahal dira kontratu, plegu eta gainerako gaiei buruzko informazio guztia. Lehiaketaren inguruko dokumentazioaz eta kontratuaz sor daitezkeen zalantzak Erakunde Kontratatzaileak argituko ditu.

Erakunde Kontratatzaileak enpresa lizitatzaileen eskura jartzen dituen dokumentu horiek lehiaketaren xede diren eskaintzak prestatzeko baino ez dira erabiliko. Hori horrela, enpresa lizitatzaileek konpromisoa hartzen dute beste zeregin batzuetarako ez erabiltzeko dokumentazio eta informazio hori.

### 2.3. Bermeak

#### 2.3.1. Behin-behinekoa
Plegu honen karatulako **I Atalean** hala aurreikusten baldin bada, lehiaketan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da behin-behineko bermea aurkeztea enpresa lizitatzaileen aldetik, karatulan zehazten den lizitazioaren aurrekontuaren zenbatekoa izango duena.

Enpresa lizitatzaileek berme hori esku dirutan, Zor Publikoaren balioetan, abal bidez edo kaudizio aseguru-kontratu bitartez aurkeztu ahalko dute.

Behin-behineko bermea aldi baterako enpresa-elkartean parte hartzen duten enpresa guztiek edo haietako betek ezar dezakete; betiere, eskatzen den diru kantitate guztia jarriz, eta aldi baterako enpresa-elkartea osatzen duten enpresa guztiak era solidarioan bermatuz.

Behin-behineko berme hori esleipendunak ez diren enpresa lizitatzaileei itzuliko zaie, lehiaketaren esleipena egin ondoren.

Enpresa lizitatzaileek jarriko duten behin-behineko bermea gauzatuko da baldin eta arrazoia justifikatu gabe eskaintza baztertzen badute kontratua adjudikatu aurretik, edo esleipendun hautatuko denak behin betiko bermea gauzatzen ez badu, edo hari egotzi zaizkion zioengatik kontratua sinatzen ez badu. Plegu honetako 3.8 klausularen arabera.

#### 2.3.2. Behin betikoa
Plegu honen karatulako **J Atalean** hala aurreikusten baldin bada, eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztuko duen lizitatzaileak behin betiko bermea jarri beharko du Erakunde Kontratatzailearen aurrean, kontratua adjudikatzeko prezioaren ehunekoaren baliokidea izango dena, edo karatulan zehaztuko den zenbatekoa izango duena.

Enpresa lizitatzaileek berme hori abal bidez aurkeztu ahalko dute. Abala **III. eranskinean** ageri den ereduaren arabera izango dira.

Eskaintza ekonomiko egokiena aurkezten duen lizitatzailearen erruz betetzen ez bada behin betiko bermea, Erakunde Kontratatzaileak ez du esleituko lehiaketa edo kontratua haren alde, eta plegu honetako 2.1 klausulan ezarritakoa beteko da.

Behin betiko bermeak honako egoera hauei egingo die aurre: a) esleipendunak kontratuan dituen betebeharrak berandu betetzea edo behar bezala ez betetzea; b) esleipendunak

kontratua ez betetzea; c) kontratuan aurreikusten diren zigorrak; eta c) hornidura kontratuen kasuan, aurreikusitako berme aldian hornituko diren ondasun edo materialen akatsak.

## 2.4. Proposamenen aurkezpena

### 2.4.1. Lekua eta epea

Prozeduran interesa duten enpresek astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara, aurkeztu beharko dituzte proposamenak Erakunde Kontratatzailearen bulegoan eta Plegu honen karatulako **G Atalean** zehazten da noiz izango den azken eguna aurkezteko.

Lizitatzaileak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.

Aipatutako datatik zazpi (7) egun igaro ondoren, eta dokumentazioa jaso ez bada, aurrerantzean ez da inola ere onartuko.

Proposamenak hiru (3) hilabeteko epeaz mantendu beharko dira.

### 2.4.2. Proposamenei buruzko oharrak

Proposamena aurkeztu ondoren, lizitatzaileak ezin izango du erretiratu, behar bezala justifikatuko den ezinbestekoa izan ezik.

Enpresa lizitatzaile bakoitzak proposamen bakarra aurkeztu ahal izango du; eta bakarka egin badu, ezin izango du aldi baterako beste enpresa batekin aurkeztu; ezta aldi baterako enpresa elkarte batean baino gehiagotan egon ere. Atal honetan azaltzen dena bete ezean, enpresak aurkeztuko dituen proposamenak baztertuko dira.

Kontraesan, dokumentu gabezia edo falta, modu egokian irakurtzeko, eta, beraz, eskaintza behar bezala balioesteko, akatsak edo ezabaketak dituzten proposamenak ez dira onartuko.

Enpresa lizitatzaileei eskatzen zaien dokumentazioa, baldin eta dokumentazio hori notariala bada, Lege eta Arau Notarialak eskatzen duen eran eta haren arabera aurkeztuko da. Dokumentuak administratiboak badira, aldiz, jatorrizkoan edo kopian zein fotokopian aurkeztu ahal izango dira, behar bezala egiaztatuak.

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu beharko da. Enpresa atzerritarrek modu ofizialean itzulita aurkeztuko dute dokumentazioa, aipatutako hizkuntza horietako batean.

Eskaintzarik eginez gero, enpresariek baldintzarik gabe onartuko dituzte Plegu honetako klausula guztiak. Halaber, ardura-adierazpena aurkezteak esan nahi du Erakunde Kontratatzailearekin kontratatzeko betebehar guztiak betetzen dituela.

### 2.4.3. Proposamenak baztertzeko zioak

Lehiaketatik kanpo geratuko dira, Erakunde Kontratatzaileak behar bezala arrazoitu eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:

a) Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
b) Plegu honetan eskatutako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa edo gaitasun profesionala ez aurkeztea.
c) Proposamen ekonomiko bat baino gehiago aurkeztea, bakarka edo beste enpresa lizitatzaile batzuekin batera.
d) Plegu honetan edo zehaztapen teknikoen pleguan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
e) SPKLTBen xedatutako baldintzaren bat ez betetzea.

Baztertuko diren proposamenak dokumentazio administratiboaren gutun-azala zabaltzeko aktan jaso edo islatuko dira, baztertzeko zioak azalduz.

**2.5. Proposamenen edukia**

Aurkeztuko diren proposamenak, hasiera batean, hiru (3) gutun-azalak itxietan egongo dira lakratuak edo zigilatuak aukez daitezkeenak, lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuak eta gutun-azal bakoitzaren kanpoko aldean ondoko datu hauek idatziko dira:

(i) Lehiaketaren izena eta hari dagokion edukia.
(ii) Lizitatzailearen izena eta haren ordezkaria.
(iii) Jakinarazpenak egiteko helbidea, posta elektronikoaren helbidearekin batera,
(iv) Telefono eta fax zenbakiak.

Dokumentazio hori adierazitako hurrenkeran aurkeztu beharko da, paperean azaleztatua eta CD formatuan (WORD, PDF edo antzekoa).

**2.5.1. (A) gutun-azala: Dokumentazio administratiboa eta kaudimena**

(A) gutun-azalean hauxe idatziko da:

*"(Kontratuaren izena)*
*A gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.*
*Lizitatzailea (…)".*

I. Dokumentazio administratiboa, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatzaileek nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz. Horrekin batera, **V. eranskina** behar bezala beteta eta **X. eranskina** behar bezala beteta eta sinatuta ere aurkeztuko dira, baita behin behineko bermea ere.

Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariek,jatorrizko kopian edo kopia egokian, edo notarioaren aurrean behar bezala egiaztatutako jatorrizkoaren zein kopia egokiaren fotokopian honako dokumentazio hau aurkeztuko da:

(i) Lehiatzeko gaitasuna:
a) Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legediak hala eskatzen badu.

Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.

Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresaburuak badira, nahikoa izango dute merkataritza edo lanbide erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea.

Gainerako enpresaburu atzerritarrek euren herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrak edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute.

b) Bakarka edo bere izenean aurkezten bada enpresaburua, parte hartzeko eskabidea edo eskaintza sinatzen duen pertsonaren Nortasun Agiri Nazionala espainiarra bada. Atzerriko pertsona fisikoen kasuan, pasaportea edo indarreko agiri baliokidea aurkeztu beharra dago.

(ii) Ahalmena:
Lizitatzailearen ordezkariaren identitatea egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia aurkeztuko da (NANa espainiarrentzat eta pasaportea edo indarreko agiri baliokidea atzerritarrentzat), eta merkataritza-erregistroan alta emanda dagoela ziurtatzen duen dokumentua, ordezkatzen duen pertsonaren izenean jarduteko baimentzen duena.

(iii) Lehiatzeko debekurik ez duen ardura-adierazpena:
Ardura-adierazpena SPKLTBen 146.1c) artikuluak xedatutakoari jarraiki, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren 60. artikuluan arautoko debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen administrazio publikoekin kontratatzeko. Horretarako, Plegu honetako **II. eranskina** beteko da.

Ardura-adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du. SPKLTBen 146.1c) artikuluak xedatutakoari jarraiki.

(iv) Behin-behineko bermea:
Plegu honen karatulako **I Atalean** hala eskatzen baldin bada, behin-behineko bermeari lotutako dokumentazioa aurkeztu beharko da.

(v) **V. eranskina** behar bezala beteta aurkeztea.

(vi) **X. eranskina** behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztea.

II. Kaudimen teknikoa eta ekonomikoa:

(i) Kaudimen teknikoa: Lizitatzaileek duten kaudimen teknikoa honako dokumentu hauen bidez egiaztatuko da:

a) Azken zazpi (7) urtean kontratu honen antzeko ezaugarriak dituzten zerbitzu nagusien zerrenda lizitatzailearen aldetik, haien prezioak, datak eta onuradun publikoak edo pribatuak adieraziz.

Lehiaketan parte ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko dira derrigorrean: Larrialdiko energia elektrikoaren hornidura finko bat (1) gutxienez garatuta izatea, zerotik pasa gabeko 400 kVAs baino handiagoa, ekipo elektrogenoaren eta antzeko ezaugarrien baterien konbinaketaren bidez azken zazpi (7) urtean (2006-2013). Hartzailea erakunde publikoko erakunde bat denean, dagokion organo eskumendunak emandako ziurtagiri edo bisatuen bitartez akreditatuko dira lanak, eta hartzailea pertsona pribatua bada, azken horrek emandako ziurtagiri baten bidez, edo ziurtagiririk ezean, lizitatzailearen adierazpenaren bitartez.

b) Lizitatzaileak Espainian legez jarduteko gaitasun eta titulazio egokia eta kontrastatua duen ikerketa talde bat duela egiaztatu beharko du, Plegu honetan azaltzen diren lanak behar bezala egin ahal izateko.

Horretarako, plantillaren urteko batez bestekoaren adierazpena aurkeztuko da, azken hiru (3) urtean izandako titulazioak adieraziz.

(ii). Kaudimen ekonomikoa-finantzarioa: Lizitatzaileek duten kaudimen ekonomikoa-finantzarioa honako hiru dokumentu hauen bidez egiaztatuko da:
a) Azken ekitaldiari dagozkion urteko kontuak, Merkataritza Erregistroan behar bezala auditatuta eta aurkeztuta; merkataritza erakundeak izanez gero, eta azken ekitaldiari dagokien Pertsona Fisikoen gaineko Errenta Zergaren eta Ondareen gaineko Zergaren adierazpena, pertsona fisikoak direnean.

b) Lizitatzailearen adierazpenaz, azken hiru (3) ekitaldikoari (2012, 2011 eta 2010) dagozkion negozioaren zifra globalaren inguruan, edo hala dagokionean, negozio bolumenari buruz. Lehiaketan parte hartzeko ezinbesteko baldintza izango da azken hiru (3) ekitaldikotan (2012, 2011 eta 2010) negozioa bolumena urtean 840.000 eurotik gorakoa izatea enpresen aldetik.
c) Finantza erakundeen txostenaz, lizitatzailearen ahalmen ekonomikoaren inguruan .

III. Kaudimena kanpo-baliabideekin integratzea.
Kontratu hau egiteko nahiko kaudimena duela egiaztatzeari begira, kontratista beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartezkoez balia daiteke, erakunde horiekin izango dituen harreman juridikoak edozein direla, betiere kontratua gauzatzeko erabiliko direla egiaztatuz.

Kontratua gauzatu ahal izateko kontratistak bitarteko horiek izango dituela egiaztatze aldera, eta azpikontratistek egingo dituzten lanen zatiek ez dutela kontratuaren prezioaren %50 baino gehiago izango, azpikontratazioari buruzko konpromisoa erantsi beharko da, honako baldintza hauekin:

a) Hasieran dokumentu pribatuan aurkeztu ahal izango da. Hala ere, enpresa esleipenduna izango balitz, eskritura publikoan dokumentatuko litzateke.
b) Azpikontratatzeko asmoa duen kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren aldean zer ehuneko den adierazi beharko dira.
c) Kontratuaren esleipenduna izanez gero, azpikontratatuko dituen enpresen eskura behar beste baliabide jarriko ditu kontratuaren zati hori egiteko.
d) Etorkizuneko azpikontrata izenaren bidez identifikatuko da, edo enpresa profilaren bidez. Geroago, esleipendunak beste enpresa batzuk azpikontratatu nahi baditu, SPKLTBen 227.2 artikuluaren a) eta c) letretan xedatutakoa beteko ditu.

IV. Aldi baterako enpresen elkarteak:
Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, Plegu honetako aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, karatulan besterik esaten ez bada. Gainera, VII. eranskinaren ereduaren arabera, horrelako kasuetan honako datu hauek emango dira dokumentu pribatuan:

a) Enpresen elkartea osatzen duten pertsonen izenak eta zirkunstantziak.
b) Enpresa elkartean bakoitzak duen parte hartzea.
c) Haien guztien izenean ordezkaritza izango duen pertsona edo erakundea, jabetzaren aurrean, kontratua indarrean dagoen bitartean, Erakunde Kontratatzailearen aurrean arduraduna izanik.

Lizitazioa aldi baterako enpresa elkarte bati esleituko balitzaio, Erakunde Kontratatzailearen aurrean egiaztatu beharko lukete haren eraketa eskritura publikoaz.

V. Esleitzeko lehentasunak: Kontratazioan interesa duen enpresak nahi baldin badu –betiere, horretarako baldintza egokiak gertatzen badira– hari aplikatzea 2.9 klausulan jaso diren esleitze-lehentasunak, hizpide dugun gutun-azalean ondoko agiri hauek sartu beharko ditu:

a) Klausula aipatuko a) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, aurkeztu beharko dira Gizarte Segurantzako TC2 agiria –enpresan diren langileei buruzko egiaztagiria– eta enpresak sinatutako adierazpena, zeinean zehaztuko den 100eko 33ko edo gehiagoko ezgaitasun-ehunekoa duten langileen kopurua eta berorien nortasun agiriak.
b) Klausula aipatuko b) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, enpresak aurkeztu beharko du lan elkartuko kooperatiba eta bigarren mailako edo maila txikiagoko kooperatiba izatearen egiaztagiria.
c) Klausula aipatuko c) idatz-zatiko lehentasunari dagokionez, enpresak aurkeztu beharko du, batetik, dagokion erregistro publikoan erregistraturik egotearen egiaztagiria eta, bestetik,

adierazi beharko du konpromisoa hartzen duela aipatu klausulan aipatzen diren taldeetako pertsonekin gutxienez lanpostuen ehuneko 30 betetzeko.

VI. Enpresa atzerritarren jurisdikzioa
Enpresa atzerritarren jurisdikzioari dagokionez, enpresaburu atzerritarrek adierazpen bat aurkeztu beharko dute, eta bertan Espainiako epaitegi eta araubide juridikopean soil-soilik izateko onartuko dute, kontratuaren gorabehera zuzenetik edo zeharkakotik sor daitezkeen interpretazioen aurrean, eta hala denean, lizitatzaileari dagokion atzerriko jurisdikzioa bazter uzteko prest dagoela adieraziz.

Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean izena emana duten enpresek (i) eta (ii) azpiataletan adierazten diren zirkunstantziak egiaztatzeko, nahikoa izango dute erregistroaren egiaztagiria aurkeztea edo sailkatzeko ziurtagiri erkidea. Horrekin batera, lizitatzailearen ardura-adierazpena aurkeztuko da, ziurtagirian azaltzen diren zirkunstantzietan aldaketarik ez dela izan adieraziz.
Enpresa batzuek batera aurkeztuz gero, UTE bat osatuz, izaera eta ahalmenari dagozkien betekizunak akreditatu beharko ditu horietako bakoitzak.

**2.5.2. (B) gutun azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa**
(B) gutun-azalean hauxe idatziko da:

*"(Kontratuaren izena)*
*B gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideen dokumentazioa*
*Lizitatzailea (…)".*

Lizitatzaileak honako dokumentazio hau aurkeztuko du, adierazten den hurrenkeran:

a) Memoria teknikoa. Zehaztapen teknikoan adierazten diren elementuak deskribatzen dituena. Eskaintzen diren materialen, marken eta ekipoen definizioak, aurrekontuarekin batera azalduta.

   Mantentze prediktiboa eta prebentiboa. Larrialdiko sistema bere osotasunean, bi urteko epeaz, eta haren irismena definituta. Honako gutxieneko ezaugarri hauek izango ditu: ekipo elektrogenoaren, SAIren eta bere baterien, koadroen eta kanalizazio elektrikoen mantentzea eta aldian aldiko errebisioak.

b) Lanen planifikazio zehatza. Lanek irauten duten bitartean, eraikinaren tentsio-etenak ahalik eta txikienak edo gutxienak izango dira. Horien planifikazioa arreta handiz egingo da, eta CIC Energiguneren lan etenaldietan egingo dira (asteburuetan, Aste Santuko edo Udako oporretan), edo lana egiten den bitartean, zentroari beste modu batez hornitu energiaz, ekipo elektrogeno bitartez, kasu. Plegu teknikoan azaltzen diren lan guztiak egiteko esperientzia egiaztatua eduki beharko du lan taldeak. Esperientzia hori frogatzeko, lan taldea osatzen duten kide bakoitzaren curriculum vitae aurkeztuko da.

c) Proiektu eta obra taldearen izendapena eta lan horiek egiteko emango duten denbora deskribatuko dira.

Azpikontratazioak. **VIII. eranskinean** dagoen ereduaren arabera, kontratu honen lan zati batzuk gauzatzeari begira, lizitatzaileek lan horiek azpikontratatzeko asmorik badute, kontratuaren zein zatiri dagokion azpikontratazio hori adierazi beharko dute. Horrekin batera, azpikontratazio horren balioa edo zenbatekoa eta azpikontratistaren izena edo profil profesionala. Geroago egin dezaketen edozein aldaketa Erakunde Kontratatzailearen oniritzia beharko du, Plegu honetako 4.10 klausulan xedatzen den moduan.

Gutun-azal honetan ez da sartuko proposamen ekonomikoa, ezta formula bidez kuantifikatu ahal den beste dokumentazio bat ere.

Azken batean, Plegu honen karatularen **P Atalean** zehazten den ildotik, formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak ebaluatzeko dokumentazio guztia aurkeztu beharko da. Horrezaz gain, lanak hobeto egiteko, bestelako informazio gehigarri edo egitasmoari egiten zaizkion hobekuntzak ere aurkez daitezke.

**2.5.3. (C) gutun azala: Formula bidez ebaluagarriak diren irizpideen dokumentazioa**
(C) gutun-azalean hauxe idatziko da:

*“(Kontratuaren izena)*
*C gutun-azala: Formula bidez ebaluagarriak diren irizpideen dokumentazioa*
*Lizitatzailea (…)”.*

(C) gutun-azalak bermearen epea eta proposamen ekonomikoa (horren barruan hornidura, abian jartzea eta mantentzea) jasoko ditu soil-soilik, lizitatzaileak sinatua edo haren ordezkariak sinatua Hori guztia, Plegu honetako **IV. eranskinean** agertzen den ereduaren arabera; baita atal bakoitzeko zehaztapena eta proposamen ekonomikoaren ezaugarriak ere.

**2.6 (A) gutun-azalaren irekiera eta sailkapena. “Dokumentazio administratiboa”**

Behin proposamenak aurkezteko epea amaiturik, kontratazio-mahaiak aztertuko eta kalifikatuko ditu denbora eta modu egokian haien eskaintza egin duten lizitatzaile guztiek (A) gutun-azalean (dokumentazio administratiboa eta kaudimena) aurkeztu dituzten agiriak.

Hautematen bada konpon daitezkeen akatsak edo ahazteak daudela agiri aurkeztuetan, enpresa erasanei gertakari aipatuaren berri emango zaie posta arruntez edo ofizioz ala posta elektronikoz edo faxez. Enpresek gehienez hiru (3) eguneko epea izango dute akatsak edo ahazteak zuzentzeko kontratazio-mahaiaren aurrean.

Aurreko klausulan aipatu konpontzea alde batera utzita, gaitasun- eta kaudimen-baldintzak egiaztatze aldera, kontratazio-mahaiak eska diezazkioke enpresari egiaztagiri edo agiri aurkeztuei buruzko azalpenak edo, bestela ere, eska diezaioke agiri osagarriak aurkez ditzala. Enpresa erasanak bost (5) eguneko epea izango ditu azken horiek aurkezteko. Agiri osagarriak, bidenabar, ezin izango dira aurkeztu hurrengo paragrafoan aipatzen den onartze-adierazpena gauzatu ondotik.

Behin agiriak kalifikatuta eta, hala badagokio, akatsak edo ahazteak konponduta, kontratazio-mahaiak proposatuko dio kontratazio-organoari agiri honetan aurreikusitakoaren arabera kaudimena frogatu duten eta lizitazioan onartuak izango diren hautagaien zerrenda. Proposamen horretan, halaber, kontratazio-mahaiak adieraziko du zer enpresa baztertu diren eta zergatik.

Kontratazio-organoak, eskatzaileen izena eta kaudimena egiaztatu ondotik, lizitatzaile onartuen eta baztertuen zerrenda onartuko du, eta lizitatzaileei haren berri emango die.

Enpresa parte-hartzaileen eskura izango da eskaintza aurkezteko onartuak izan diren enpresen, enpresa baztertuen eta baztertzearen arrazoiak ekartzen dituen zerrenda, eta kontratazio-mahaiaren aurrean kontsulta dezakete. Kontratazio-mahaiak, nolanahi ere, zerrenda aipatua argitaratu dezake, aipatu organoaren iragarki-oholean iragarkiak jarriz edo sistema elektronikoaren, kontratatzailearen profilean edo prozeduran egoki diren beste bide batzuen bidez.

Edonola ere, aipatu zerrenda publikoki irakurriko da, formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak dituzten gutun-azalak jendaurrean irekitzeko ekitaldian.

**2.7 <u>(B) gutun-azalaren irekiera eta sailkapena. “Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei buruzko dokumentazioa”</u>**

(A) gutun-azalak ireki ondoren, eta hala badagokio, akatsak zuzendu eta gero, erakunde kontratatzaileak eratuko da jendaurrean izango den saio batean, karatulako **<u>V Atalean</u>** adieraziko den leku, egun eta orduan, eta eskaintzak irekiko dira jendaurrean honako helburu hauekin.

a) Lizitatzaileei onartutako proposamenen berri ematea; baita baztertutakoena eta baztertzeko arrazoiak zeintzuk izan diren. Horren berri emateaz gain, onartutako enpresen zerrenda Erakunde Kontratatzaileak duen kontratatzailearen profilean ere argitaratuko da, eta edozein bidez jakinaraziko zaie onartuko ez diren enpresei.

b) (B) gutun-azala ireki eta irakurtzea, erakunde kontratatzaileak ekitaldian izango diren lizitatzaileak edo haien ordezkariak gonbidatuko ditu gutun-azalak aldatu gabe daudela egiaztatzera.

Egokitzat jotzen baldin badu, lizitazioan parte hartzeko onartuko diren enpresak zehaztutakoan, erakunde kontratatzaileak B gutun-azalak bidaliko dizkio sailaren zerbitzu teknikoei, azken honek ebaluatzeko dokumentazio hori. Hain zuzen ere, aurkeztuko diren proposamenen azterketaz zerbitzu teknikoak arduratuko dira, **<u>P Atalean</u>** ezarritako irizpideei jarraiki. Lan hori egiteari begira, behar diren txostenak eta aholkularitza eskatu ahal izango ditu.

Gainera, lizitatzaileek aurkeztutako dokumentazioaren inguruan argibideak eskatu ahal izango dizkie.

Hurrengo fasera pasatzeko (“C” gutun-azalen balorazioa), lizitatzaileek lortu behar dute, gutxienez, agiri honetako klausulan jasotako irizpideen guztizko puntuazioaren %50. Puntuazio hori lortzen ez duten lizitatzaileak lizitaziotik kanpo geratuko dira eta, horrenbestez, ez da haien “C” gutun-azala irekiko.

Ebaluazioaren emaitza publikoa egingo da kontratatzaile-profilaren edo prozeduran egoki diren beste bide batzuen bidez. Edonola ere, aipatu emaitza publikoki irakurriko da, (B) gutun-azala jendaurrean irekitzeko ekitaldian.

Akta egingo da eta erabakitako guztia eta (B) gutun-azalaren dokumentazioari buruzko balorazioa bertan jasoko da.

**2.8 <u>(C) gutun-azalaren irekiera eta sailkapena. “Formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideei buruzko dokumentazioa”</u>**

Eskaintzak publikoki irekitzeko toki, egun eta ordu zehaztua –inoiz ez dena izango proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik zenbatzen hasita bi hilabeteko epea baino geroago– kontratatazio organoak jakinaraziko du, ekitaldi publikoan eta APKLAOko 83. artikuluan ezarri baldintzatan, enpresa parte-hartzaileen kopurua eta haien izena. Ekitaldi berean (A) gutun-azalaren dokumentuen kalifikazioaren emaitzaren berri emango da, eta zehaztuko ditu enpresa onartuak, baztertuak eta ez-onartzearen zioak.

Horren ondoren, ahoz jakitera emango da (B) gutun-azalak irekitzearen emaitza; gutun-azalean aurkeztu agirien ebaluazioaren emaitza. ;

Ondoren, (C) gutun-azala (formula bidez kuantifikatu ahal diren irizpideei lotutako dokumentazioa) irekiko da eta lizitatzaile onartuek aurkeztu eskaintza ekonomikoak irakurriko da.

## 2.9 Eskaintzak balioestea

(C) gutun-azala jendaurrean zabaldu ondoren, erakunde kontratatzaileak gutun-azal horri dagokion dokumentazioa kanpoko organo bati bidali ahal izango dio, eta hala badagokio, onartutako enpresen (B) gutun-azalaren ebaluazioari buruzko emaitza. Kontrataziorako aholkularitza lanak egiten dituen organo horrek txosten tekniko globala egingo du eskaintza guztien artean; betiere, gutun-azal horien inguruko ebaluazioak aintzat hartuta.

Era berean, erakunde kontratatzaileak behar beste txosten eskatu ahal izango du, kontratua era egokienean esleitzeari begira.

Aurrekoa egin eta gero, erakunde kontratatzaileak dagokion proposamen egingo du, **P Atalean** adierazitako eskaintzak balioesteko irizpideak eta jarraian azaltzen diren lehentasunak kontuan hartuz.

i- Esleitze-lehentasunak: Negoziazioaren ondorioz gertatu diren baldintzei so, bi proposamen edo gehiago onuragarrienetan berdinduta badaude eta (A) gutun-azalean aurkeztu badituzte 2.5.1 klausulan aurreikusitako egiaztagiriak, hauek izango dira esleitzean lehentasuna izango duten enpresak:

a) Gaitasun teknikoa egiaztatzeko unean, langileen artean 100eko 33 edo gehiagoko minusbaliotasuna duten langileen ehunekorik handiena duen enpresa, betiere, ehuneko aipatua baldin bada enpresako langileen 100eko 2tik gorakoa.
b) Lan elkartuko kooperatibak eta bigarren mailako edo maila txikiagoko kooperatibak.
c) Pertsona baztertuak laneratzearen eta sustatzearen alde lan egiten duen enpresa, beti ere, enpresak konpromisoa hartu badu lanpostuen gutxienez ehuneko 30a betetzeko jarraian aipatuko ditugun taldeetako pertsonekin, zeinen egoera egiaztatu beharko duten gizarte-zerbitzu publiko eskumendunek. Hauek dira taldeak:

    – Txertaketako errenta minimoak, haren antzeko izaerako edo izaera bereko sariak jasotzen dituzten pertsonak, betiere, gogoan harturik autonomia-erkidegoetan izen desberdina izan dezaketela.
    – Aurreko paragrafoan aipatu sariak jaso ezin ditzaketen pertsonak, egoitza- edo erroldatze-epe eskatua bete ez izanagatik, edo sariaren unitate jasotzailea osatzeko epea bete ez izanagatik, edo legez ezarritako jasotze-epe maximoa agortu izanagatik.
    – Hamazortzi urtetik gorako eta hogeita hamar urtetik beherako gazteak, adingabeak babesteko erakundeetatik datozenak.
    – Droga-menpekotasun edo alkoholismo arazoak eduki eta errehabilitazio- ala gizarteratze-prozesuetan sarturik dauden pertsonak.
    – Espetxeratuak –zeinen espetxe-egoerak aukera ematen dien lanean aritzeko– baldintzapean askatuak eta preso ohiak.
    – Pertsona minusbaliatuak.

Lehentasunak aplikatzeko orduan, lehenetsiko da aurreko ezaugarrietatik bat baino gehiago biltzen dituen enpresaren proposamena. Aldi baterako enpresa-elkarteei dagokienez, lehentasunak zenbatetsiko dira lizitatzaile bakoitzak enpresa-elkartean duen ehunekoaren arabera.

Irizpide horiek guztiak aplikatuta ere proposamenen arteko berdinketa hautsi ez bada edo, aurreko paragrafoan aipatutakoarekin bat etorriz, enpresa bat berak ere ez badu esleitze-lehentasunik, kontratua esleituko zaio –betiere, esleitze-irizpide ugari badaude– guztietan pisu gehien duen irizpidean puntuaziorik handiena jaso duen proposamenari. Irizpide hori aplikatuta ere berdinketa hausten ez bada, irizpide bakoitzari eman zaion garrantziaren ordenari

erreparatuko zaio. Aitzitik, prezioa baldin bada eskaintzak balioesteko irizpide bakarra, berdinketa zozketa bidez hautsiko da.

ii- Argibideak. Aukeratuko den proposamena formulatu aurretik, erakunde kontratatzaileak eskatu ahal izango dizkie enpresei argibideak, idatziz emango dituzten argibide horiek eskaintzak hobeto ulertzeko izango dira. Nolanahi ere, argibideak ematean ez da onartuko eskaintzan egindako proposamena aldatzea enpresa lizitatzaileen aldetik. Hori horrela, informazio hori gorabehera, hasierako proposamenaren edukia izango da aintzat hartuko dena.

iii- Balio ezohikoak edo gehiegizkoak. Erakunde kontratatzaileak proposatutako eskaintzaren batek edo batzuek balio ezohikoak edo gehiegizkoak dituztela uste badu, haren berri emango dio kontratazio organoari, eta egokitzat joko dituen behar beste txosten aurkeztuko ditu.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak izango ditu honako baldintza hauek betetzen baditu: onartutako proposamenen batez bestekoaren aldean ehuneko hogeita bost gutxiago denean.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela adierazi baino lehen, harekin zerikusia duten pertsonei informazioa eskatu eta eman beharko litzaieke. Gainera, dagokion zerbitzu teknikoaren aholkularitza emango zaio eta kontratazio mahaiak txostena egingo luke, eta lizitazioan enpresa lotuek eskaintza desberdinak aurkeztu badituzte, kontuan hartuko da SPKLTBen 145.4 artikuluko bigarren paragrafoan eta APKLAOren 86.1 artikuluan xedatutakoa.

Lizitazio iragarkia Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen bada, erabakia justifikatu beharra dago Europako Ekonomia Erkidegoko kontratu publikoetarako Aholku Lantaldearen aurrean.

Lizitatzailearen justifikazioa entzun ondoren eta aipatutako txostenak aintzat hartuta, kontratazio-organoak uste badu proposamena betetzea ezinezkoa dela, balio ezohiko edo gehiegizkoak edukitzeagatik, proposamena bazter utziko du.

**2.10 Proposamenen sailkapena eta eskaintza ekonomiko onenaren hautaketa**

Erakunde kontratatzaileak kontratazio-organoari aurkeztutako proposamen zerrenda helaraziko dio, balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela jo ez diren proposamenak, hain zuzen ere, SPKLTBen 152 artikuluaren arabera, behetik gorako sailkapenari jarraiki, agirian zehazten diren irizpideekin bat etorriz, eta onartutako eta baztertuko proposamenak adieraziko dizkio.

Goraxeago aipatutako sailkapenarekin batera, aktak, egindako txostenak, eskaintza ekonomiko egokienaren identifikazioa eta komenigarritzat jotzen diren oharrak ere bidaliko dira.

Eskaintza ekonomiko egokienaren identifikazioak ez dio ekarriko inolako eskubiderik aukeratuko den lizitatzaileari EEEren aurrean.

**2.11 Hautatutako esleipendunak dokumentazioaren aurkezpena, esleipena egiteko**

Araua orokor gisa, adjudikatzeko hautatutako lizitatzailea aukeratzeko, kontratazio-organoak erakunde kontratatzaileak egindako proposamenari egingo dio kasu. Horrela ez balitz, kontratazio-organoak bere erabakia arrazoitu beharko du, eta hala badagokio, proposamenen behin betikoa egingo du.

Hamar (10) egun baliodun eko epean –eskakizuna jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita– eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztutako lizitatzaileak edo enpresak ondoko hauek egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu:

a) Zerga-betebeharrak nahiz Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak beteta izatea.
b) Behin betiko bermea eratu izana.
c) Berariaz eskatutako aseguruen polizak edo agiriak, hala badagokio 4.8 klausulan.
d) Enpresak azpikontratatzeko konpromisoa aurkeztu badu, enpresa azpikontratista horren konpromisoa berriro akreditatu beharko da.
e) Esleipendunak aldi baterako enpresen elkartea balitz, aldi baterako enpresa horiek elkartzeko eskritura publikoa aurkeztu beharko du, SPKLTBen 59. Artikuluaren arabera, kontratua amaitu arteko datarekin bat egingo duena.
f) Enpresaren kontratatzeko gaitasunaren beste egiaztagiri batzuk, edo kontratazio-organoak eskatzen dizkion eta enpresak kontratua gauzatzeko erabiliko dituela hitz eman duen baliabideak egiazki dituela erakusten duten egiaztagiriak.

Zerga-betebeharrak beteta izatea egiaztatzeko, lizitatzaileek ondoko agiri hauek aurkeztu behar dituzte (APKLAOren 13 eta 15. artikuluak):

a) Jarduera Ekonomikoen Zergaren azken ordainagiria edo, enpresa sortu berria bada eta oraindik ez badu Jarduera Ekonomikoen Zerga ordaindu beharrik izan, zerga horretan alta eman izanaren agiria. Edonola ere, alta ematearen agiria aurkeztu beharko da ordainagiri emana ez bada jaso jardueraren epigrafean. Agiri horietan jaso beharko da kontratuko xedeari dagokion epigrafea, zeinak enpresa gaitzen duen dihardeun lurralde-eremuan aritzeko. Horrez gainera, aurkeztu beharko da enpresaren erantzukizunezko adierazpena, erakusten duena enpresak ez duela baja hartu Jarduera Ekonomikoen Zergaren matrikulan. Aurkezten badira Euskadiko Kontratisten Erregistro Ofizialeko egiaztagiria eta enpresaren erantzukizun-adierazpena– egiaztatzen duena egiaztagirian jasotako inguruabarrak aldatu ez direla– ez dira aurkeztu beharko zergan bajan eman ez izanaren agiria izan ezik gainerako beste guztiak.

b) Zerga Administrazioko organo eskumendunak emandako egiaztagiri positiboa, APKLAOren 15.2 artikuluan jasotako baldintza formalak biltzen dituena. Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan izena emanda egoteari buruzko indarreko egiaztagiria edukitzea egiaztatzen edo egiaztatu dutenek ez dute egiaztagiri hori aurkeztu beharrik, betiere, indarraldi aipatuak dirauen bitartean eta aldatu ez badira dagokion egiaztagirian jasotako inguruabarrak. Enpresak, bidenabar, bi egitate horiek berariaz adierazi beharko ditu kontratua formalizatzeko agirian. APKLAOko 13. artikuluan jaso diren zerga-betebeharrei buruzko aitorpen edo agiri guztiak ala horietako batzuk aurkeztera derrigorturik ez dagoen enpresak baldintza hori egiaztatu beharko du erantzukizun-adierazpenaren bidez.

Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete izana egiaztatuko da agintaritza administratibo eskumendunak igorritako egiaztagiri positiboaren bidez, zeinak beteko dituen APKLAOren 15.2 artikuluan jasotako formazko baldintzak. Salbuespenen bat kontuan hartu behar bada, hura egiaztatu beharko da erantzukizun-adierazpenaren bidez. Enpresak prozeduran barrena egiaztatu badu Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistroan izena emanda dagoela, ez du egiaztagiri hori aurkeztu beharrik, betiere, indarraldi aipatuak irauten duen bitartean eta aldatu ez badira dagokion egiaztagirian jasotako inguruabarrak. Enpresak, bidenabar, bi egitate horiek berariaz adierazi beharko ditu kontratua formalizatzeko agirian.

Behin betiko bermea eratu eta egiaztatuko da agiri honetako **III. eranskinean** dagoen ereduaren arabera.

Adierazitako epean eskakizunak betetzen ez badira, lizitatzaileak bere eskaintza bazter utzi duela ulertuko da, eta, beraz, dokumentazio berdina eskatuko zaio hurren lizitatzaileari, sailkatutakoaren hurrenkera kontuan hartuta.

## 2.12 Kontratua esleitzea

Aurreko atalean aipatutako dokumentazioa jaso ondoren, kontratazio-organoak bost (5) asteguneko epean esleituko du kontratua.

Esleipenak arrazoiturik egon behar du, eta bi (2) hilabeteko epean egin ezean, (C) gutun-azalak zabaltzen diren egunetik kontatzen hasita, enpresa lizitatzaileek euren proposamenak erretiratzeko eskubidea izango dute.

Esleitu gabe uztea. Kontratazio organoak ezin izango du lizitazioa esleitu gabe utzi, baldin eta pleguan zehaztutako irizpideekin bat datoren eskaintza onargarriren bat bada.

Esleipenari uko egitea eta prozedura deuseztatzea. Esleipena egin aurretik, kontratazio organoak, espedientean behar bezala arrazoituta eta interes publikoaren arrazoiak tartean daudenean, kontratuaren esleipenari uko egin ahal izango dio, edo kontratua prestatzeko edo esleitzeko prozeduraren inguruko arauei lotutako arau hauste gertatuz gero, esleitzeko prozedura deuseztatu ahal izango du.

Horrelako kasuak gertatuko balira, EEEk lizitatzaile bakoitzari emango lioken kalte-ordaina 150 eurokoa izango litzateke.

## 2.13 Esleipenaren jakinarazpena eta argitaratzea

Hautagaiei eta lizitatzaileei esleipenaren berri emango zaie, eta, aldi berean, EEEren kontratatzailearen profilean eta SPKLTBen 154.2 artikuluan ezarritako kantitatea gainditzen duenean, DOUEn eta Estatuko kontratazio plataforman edo sistema baliokidean, edo BOEn argitaratuko da.

Jakinarazpena hainbat bide erabiliz egin daiteke, betiere, jasotzaileak hartu edo jaso izanaren egiaztagiria izateko moduan, eta honako azalpen hau eramango du:

a) Baztertutako lizitatzaileei dagokienez, haien hautagaitza baztertzeko zioen azalpen laburtua.

b) Esleitzeko prozeduran baztertutako lizitatzaileei dagokienez, haien eskaintza baztertzeko zioen azalpen laburtua.

c) Nolanahi ere, esleipendunaren izena, aukeratutako esleipendunaren proposamenaren funtsezko ezaugarriak eta abantailak azalduko dira, gainerako eskaintzen aldean.

Motibazioari aplikagarria izango zaio SPKLTBen 153. artikuluan jasotzen den konfidentzialtasunari buruzko salbuespena.

Jakinarazpena zein kontratatzailearen profilean adierazi behar da kontratua formalizatzeko epea, SPKLTBen 156. artikuluan xedatutako betez.

# 3. KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA PUBLIZITATEA

Epea: Kontratuaren formalizazioa lizitatzaileei eta hautagaiei bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamabost (15) egun naturaleko epea igaro ondoren egin beharko da.

Kasu horietan, kontratazio organoak esleipendunari eskatuko dio kontratua formalizatzeko bost (5) eguneko gehieneko epean, eskakizuna egiten zaion egunetik kontatzen hasita.

Ezin izango da kontratuaren gauzapena edo sinadura lehenago formalizatu gabe, SPKLTBen 113. artikuluan jasotzen diren kasuetan izan ezik.

Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da. Alde biek eska dezakete eskritura publiko bihurtzea, eta hori egiteko gastuak eskatzen duen aldeak ordaindu beharko du. Kontratua formalizatzeak ekarriko dituen gastu eta zerga guztiak esleipendunak ordainduko ditu.

Ez formalizatzearen ondorioak: Aipatutako epeetan kontratuaren formalizazioa egingo ez balitz, kontratazio-organoari egotzi dakizkiokeen kausak tarteko, atzerapen horrek ekar ditzakeen kalte eta ondorioengatik kontratistari kalte-ordaina ordaindu beharko zaio.

Kontratuaren formalizazioa egingo ez balitz, esleipendunari egotzi dakizkiokeen kausak tarteko, kontratazio-organoak eskatutako behin betiko bermea bahitu edo konfiskatu dezake.

Egin beharreko kontratuaren edo kontratuen formalizazioa publizitateaz egin behar izanez gero, aplikagarriak izan dakizkien SPKLTBen 154 artikuluari jarraiki gauzatuko lirateke.

## 4. ERAKUNDE KONTRATATZAILEAK ETA BEHIN BETIKO ESLEIPENDUNAK SINATUKO DUTEN KONTRATUAREN OINARRIZKO BALDINTZAK

### 4.1 Segurtasuna eta Osasuna. Zuinkatze akta. Kontratua gauzatzea

a) Behar izanez gero, hamar (10) eguneko gehieneko epean, kontratua sinatzen denetik kontatzen hasita, kontratistak lan arriskuen prebentzioari lotutako dokumentazio guztia emango dio EEEri, segurtasun eta osasun alorreko koordinatzaileak berrikusi eta egiaztatzeko, urriaren 24ko 1627/1997 Errege Dekretuak xedatzen duenari jarriki, eraikuntza obretan segurtasun eta obren inguruko xedapenaz diharduena.

Segurtasun eta osasun alorreko koordinatzaileak onespenaren berri emango du; kontrakoa gertatuz gero, zuzendu beharreko alderdiak edo aurkeztu beharreko dokumentuak adieraziko ditu, akatsen garrantziaren araberako epea emango da zuzenketarako; nolanahi ere, ez da zazpi (7) egun baino gehiago izango.

Kontratistak aipatutako epeak ez betetzeagatik obrak hastea ezinezkoa balitz, kontratistak ezin izango du epeen luzapena eskatu arrazoi horregatik. Hori horrela, plegu honetako 4.5 klausulan aurreikusten den zigorra ekarriko luke ez betetze horrek.

Edozein kasutan, ezin izango zaio obrari hasiera eman, inola ere, segurtasun eta osasun alorreko koordinatzaileak onarpena eta ziurtapena eman gabe, lan arriskuen prebentzioen inguruko betebeharren betetzeaz.

b) Kontratu gauzatzen hasiko da zuinkatze akta sinatzen den unetik aurrera.

TRSPKLen 229. artikuluan ezarritakoaren arabera egingo da zuinkatzearen egiaztapena, hilabeteko (1) gehieneko epean, kontratua formalizatzen den egunetik kontatzen hasita. Zuinkatzearen egiaztapenaren eguna eta ordua aldez aurretik, nahiko denborarekin, jakinaraziko zaio kontratistari.

Zuinkatzearen egiaztapen aktan adostasuna edo desadostasuna jasoko da, proiektuari lotutako kontratuaren dokumentuei dagokienez, kontratua betetzeko funtsezkoak diren atalak bereziki eta berariaz adieraziz.

Ezin izango da obra hasi, zuinkatzearen egiaztapen akta egin arte.

Aktan garrantzitsuak eta pisuzko arrazoiak agertuz gero, hasiera bertan behera geratuko da edo behin betiko baztertuko da.

c) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.

d) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.

e) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita EEErentzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrek eragindako ondorioen erantzukizuna ere.

f) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).

g) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonei, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da.

h) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.

i) Erakunde kontratatzaileak edo EEEk ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldez aurretik baimendu ez duen ezein lan.

j) Kontratua amaitutakoan, kontratuaren helburuak diren lanak jasotzeko ekitaldi formala egingo du EEEk. Une horretatik aurrera, Plegu honetan aurreikusten den bermearen epea hasiko da kontatzen.

**4.2 <u>Kontratuaren aldaketa</u>**

1. Honako kasu hauetan alda dezake kontratua EEEk:

a) TRSPKLen 107 artikuluan xedatutako arrazoiak tartean badira.

b) Baldintza-orri edo plegu honetako IX. eranskinean zehazten diren arrazoiak tartean badira.

Kontratistak derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek eta ez du kalte-ordainik eskatzeko eta jasotzeko eskubidea, kontratuaren xedea gauzatzeko lanen gutxitzea edo bertan behera uztea ekarriko badute ere.

2. Kontratuzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarriz eta horiek negoziatuz.

3. Kontratuzko aldaketen prezioa finkatzeko, kontratistak eskainitako prezioa hartuko da kontuan.

4. Proiektuan aurreikusi ez diren edo oso ezberdinak diren beste obra batzuk egitea, zerbitzuak edo hornidurak baldin badakartzate aldaketek, horien prezioak EEEk ezarriko ditu, aldez aurretik kontratistari jakinarazita, hiru (3) eguneko gutxieneko epean. Ezarritako prezioak onartu ezean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontrata ditzake aldaketen ondoriozko lan horiek, ezarritako prezio berean edo gauzatu ditzake zuzenean. Beste enpresaburu batekin egin daitekeen kontratazioa EEEren kontratazioari lotutako barne jarraibideen arabera egingo da; betiere, kontratuaren kantitatea kontuan hartuz.

5. Kontratuan egin litezkeen aldaketak idatziz azalduko dira.

6. Kontratuaren aldaketen ondorioz, prezioan ere aldaketarik izango balitz, haren behin betiko bermea egokituko litzateke, aldatuko litzatekeen prezio berriarekin proportzio egokian izan dadin. Hori guztia, hamabost eguneko epean egin beharko litzateke, enpresaburuari aldaketaren berri ematen zaion egunetik kontatzen hasita.

7. EEEren aldetik kontratuaren aldaketa adostuta ere, eta horrek lanen atal batzuk egiten jarraitzeko eragozpenik eragingo balu, kontratua behin-behinekoz, aldez edo betiko bertan behera uztea adostu beharko litzateke, kasuan kasu.

8. Aldaketen bideratzeak lanen atal batzuk behin-behinekoz, aldez edo betiko bertan behera uztea eskatzen badu, eta horrek interes publikoari kalte handia eragingo balio, EEEk erabaki dezake lanekin segitzea behin-behinekoz, kontratuaren arduradunak prestatuko duen proposamen teknikoaren arabera; betiere, aldaketaren arrazoia Baldintza-orri honetako klausulekin bat etorriz eta hori finantzatzeko nahiko kredituri izanik.

**4.3. <u>Prezioaren ordainketa</u>**

a) Erakunde kontratatzailearen adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du kontratistak, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

b) Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den.

c) Dagokion kontratua formalizatu arte ez da inolako ordainketarik egingo.

d) Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratistak ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

e) Plegu honetan jasotzen den bezala, erakunde kontratatzaileak esleipendunari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

**4.4 <u>Bermearen gutxieneko epea</u>**

Esleipendunak edo kontratistak jarriko dituen ondasun eta materialen inguruan honako berme hauek ziurtatu behar ditu: bere jabetzakoak direla, hirugarrenen aldeko zergetatik aske direla, ez direla akastunak eta zorrotz betetzen dituztela indarrean dauden arau guztiak kalitate, segurtasun, jabetza intelektual eta industrialari dagokionez.

Bermearen gutxieneko epea bi (2) urtekoa izango da, kontratuari lotutako obra behin betiko jasotzen den egunetik kontatzen hasita. Bermea indarrean dagoen bitartean, kontratuan ezarritako kalitateari lotutako baldintzak ez betetzearen ondorioz egin beharreko konponketen edo berrezarpenen gastuak kontratistaren kontura joango dira.

Aipatutako konponketa edo berrezarpenak irauten duen denboran bermearen denbora eten egingo da, eta behin amaitutakoan, kontuan hartuko da jatorrizko bermea denbora horretaz luzatzeko.

Kontratistak bermeei dagozkion baldintzak betetzen ez baditu, erakunde kontratatzaileak ordaindu gabeko ordainketatik atxikipenak egiteko eskubidea izango du; baita abalak betearazteko eta kontratua bertan behera uzteko ere. Horrela balitz, kontratistak kalte-ordaina ordaindu beharko luke.

Berme aldia igarota, eta erakunde kontratatzaileak kontratistari obrari lotutako arazo, kalte, akats edo konponketaren berri eman ez badio, kontratua amaitutzat emango da eta kontratistaren erantzukizuna bukatuko da. Salbuespena izango litzateke ezkutuko kalte edo arazoak; halakoetan, kontratistaren ardura izango litzateke konpontzea, berme aldia igaro bada ere.

**4.5** **Epeak eta berandutzeagatiko zigorrak**
a) Esleipenduna edo kontratista derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatzera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.

b) Kontratista edozein epetan berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango erakunde kontratatzaileak aldez aurretik ohartarazpenik egitea. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak erakunde kontratatzaileak ezarriko ditu automatikoki.

c) Azken epea amaitu eta kontratista berandutu egin bada berari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla eta, erakunde kontratatzaileak adostutako azken prezioaren %20ko zigorra ezar diezaioke.

Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten erakunde kontratatzaileak kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta erakunde kontratatzaileak kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

d) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

**4.6** **Akatsez betetzea edo zatika bete gabe uztea**
a) Erakunde kontratatzaileak zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatze eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldian igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio. Zuzenketa horiek egiteko epea zazpi (7) egunekoa izango da gehienez ere.

b) Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, erakunde kontratatzaileak lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, erakunde kontratatzaileak jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

**4.7** **Esleipendunaren betebeharrak**
i- Lan arriskuen prebentzioa
Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du. baita hura garatzen duen araudia ere, hala nola Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legearen 24. artikuluak diona bereziki eta urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretuak xedatutakoa

ii- Betebehar laboral eta sozialak
a) Esleipendunak edo kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiene, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan

gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratistak bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakiokeen lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratua hau sinatzeagatik erakunde kontratatzaileak ez du inolako betebehar eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratistak bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratistak konpromisoa hartzen du erakunde kontratatzaileari erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketen arazoen aurrean.

g) Orokorrean, kontratistak aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrei, bai eta kontratistak edo honen azpikontratistek langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta erakunde kontratatzaileari ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratistak oso-osorik ordainduko dio erakunde kontratatzaileari. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

h) Erakunde kontratatzaileak hala eskatzen badio, kontratistak dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio. Aurkezten ez badio edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebehar bat ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, erakunde kontratatzaileak kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du, 25. klausulan edo atalean adierazten den moduan.

i) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere erakunde kontratatzaileko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten behargінak.

j) Kontratistari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

k) Behar bezala justifikatuta ez dauden atzerapenak edo dokumentazioa ez aurkezteak ekarriko du kontratua ez betetzea, eta, beraz, erakunde kontratatzaileak bertan behera utz dezake kontratua.

iii.- <u>Segurtasun eta osasunari buruzko betebeharrak</u>
Esleipenduna bere jardueraren segurtasun eta osasunaren arduraduna izango da, eta arituko diren pertsona guztien segurtasunari erreparatuko dio une orotan. Halaber, lekua egoera onean edukiko du, pertsonentzako arriskuak saihesteko moduan, eta prestazioaren hasieratik behin betiko akta sinatu arte honako hau beteko du:

- Babesteko behar diren neurri guztiak izango ditu bere kontura, suteen kontra, argiak, zaintza zerbitzuak, hesiak, ohartarazpena seinaleak eta horretarako behar den ikuskapena.
- Langileen ordezkari legalen eta segurtasun eta osasunez arduratzen den edozein pertsonaren eskura jarriko du segurtasun eta osasun plana, eta, orokorrean, 1627/1997

Errege Dekretuak xedatutako betebeharrak bete eta betearaziko dizkie bere azpikontratatuei, eta gorabeheren edo gertaeren liburu bat izango du kokalekuan.

Erakunde kontratatzaileak edo honek hautatuko duenak nahi duenean ikuskapenak egiteko eskubidea izango du, esleipendunak segurtasun eta osasun alorreko betebeharrak era egokian betetzen dituela egiaztatzeko, baita prebentzio alorrekoak ere. Behar bezala ez direla betetzen ikusiz gero, neurri osagarriak eskatu dezake, eta horiek esleipendunaren kontura joango lirateke, edo kontratua aldez edo osorik bertan behera uztea, betiere esleipendunak segurtasun, osasun edo beste arlo batzuetako neurriak bete ezean.

iv.- <u>Ingurumenari buruzko betebeharrak</u>
Kontratistak eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, erakunde kontratatzaileak eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

iv.- <u>Hirugarrenen baimenak</u>
Alde biek kontratua sinatu aurretik, kontratua gauzatzeko beharrezkotzat joko diren lizentzia, baimen eta horrelako dokumentu guztiak erakunde kontratatzaileak izapidetu eta emango ditu.
Behin kontratua formalizatu ondoren, esleipendunaren ardura izango da kudeaketa administratibo guztiak egitea, erakunde kontratatzailearen lankidetzan.

**4.8 <u>Aseguruak</u>**
1. Kontratuaren loturak irauten duen bitartean, esleipendunak jarraian agertzen diren aseguruak izenpetu eta indarrean mantendu beharko ditu onartutako finantza-kaudimena duten konpainiekin, eta esleipendunak edo bere azpikontratistak eragin ditzakeen kalteen estalduraren barruan izango dute erakunde kontratatzailea.

Horretarako, jarraian aipatzen diren aseguruen polizaren kopia eta kontratatutako aseguruen primaren ordainketaren egiaztagiria aurkeztuko ditu esleipendunak. Kontratu horiek lanen eraikuntzan eta berme epe osoan zehar edukiko ditu indarrean (hala badagokio, unean uneko primen ordainketa egiaztatzen joan beharko da):

1. <u>Eraikuntza/muntaketako arrisku orotako poliza</u>
   Egindako obrek eta egingo direnek izan dezaketen kalteei egingo die aurre aseguru horrek, eta honako estaldura hauek izango ditu:

   1.1 Sute, tximista, leherketa, lapurreta, espoliazioa, inpaktua, axolagabekeria,ekintza bandaliko eta apropos egindakoa, naturaren arrisku, lurraren asentamendua edo aipatu ez den beste edozein arriskuk sor dezakeen kaltea.

   1.2 Berme gehigarriak honako hauengatik:

   - Ordainsari profesionalak
   - Diseinuaren akatsen ondorioak
   - Gastuak honako arrazoi hauengatik: aparteko orduak, hondakinak kentzea, eraisketa, agintariek ezarritako neurriak, suteak itzaltzea, eta abar
   - Lehendik zeuden ondasunei kalte egitea
   - Terrorismoa
   - Greba, matxinada edo mutina eta asaldura zibila

- Aparteko gastuak
- 72 orduko klausula
- Estaldura automatikako klausula

Aseguratuta geratuko da kalte edo galera oro, baldin eta haren jatorria eraikuntza fasean badago, baita aurreragoko fase batean eragin daitezkeenak ere, obra-kontratuan ezartzen diren betebeharrak modu egokian betetzeko egingo diren lanen gauzapenaren ondorioz sortuak badira. Beraz, estaldura berme aldira ere zabaldu beharko da.

Energiaren Euskal Erakundea ere aseguratuta egongo da, aseguratu gehigarri gisa.

Mantentze aldiak, gutxienez, obren bermearen epealdia estaldu beharko du.

Aseguratutako diru kantitatea, gutxienez, BEZik gabeko obraren balioaren izango da.

Erantzukizun zibileko poliza

Honako hauek barnebilduko ditu:

- Erantzukizun zibil orokorra edo ustiapenekoa
- Enpresaburuen erantzukizun zibila, gutxieneko muga hildako bakoitzeko: 180.000 euro
- Erantzukizun zibil kruzatua, gutxieneko muga hildako bakoitzeko: 180.000 euro
- Erantzukizun zibil subsidiarioa azpikontratista
- Lanen ondorengo erantzukizun zibila
- Istripuaren ondoriozko kutsadura erantzukizuna
- Lehergailuak erabiltzearen ondoriozko erantzukizuna, baldin eta erabiltzen badira
- Defentsa eta finantzak

Energiaren Euskal Erakundea ere aseguratuta egongo da, aseguratu gehigarri gisa.
Ustiapenari dagokion erantzukizun zibilaren frankizia ez da 6.000 euro baino gehiago izango, eta kalte-ordainaren muga, gutxienez, 1.000.000 euro izango da, gutxieneko mugarik gabe hildako orokorragatik. Salbuespena erantzukizun zibil kruzatua eta enpresaburuena izango dira; horien kasuan, gutxienez, 180.000 eurokoa izango da.

Nolanahi ere, esleipendunak ordaindu beharko ditu frankiziaren zenbatekoan kalteak eta okerrak eta aseguru poliza guztietan ezartzen diren mugak gainditzen dituztenak; baita horietan estalduta ez dauden ondasun eta arriskuei dagozkienak ere.

Aurreikusitako dataren aldean, obren amaiera atzerako balitz, beharrezkotzat joko diren luzapenen kontratazioa egingo litzateke, eta horri dagokion gainprima esleipendunak ordaindu beharko luke.

Esleipendunak, lanen bukaeran, behin betiko obraren bolumenaren berri eman beharko du, eta hasieran aurreikusitako obraren aurrekontua gaindituz gero, haren kargura joango da gainprima, aseguratutako baturaren arautzeari dagokiona, hain zuzen ere.

Esleipendunak, gutxienez, honako estaldura hauek eduki beharko ditu: obra egiteko erabiliko diren ibilgailu guztientzako erantzukizun zibileko beharrezko izenpetzea, baldin eta Motor Ibilgailuen Erabilera eta Zirkulazio Legearen eraginpean badaude.

Enpresa esleipendunek Gizarte Segurantzan alta emanda eduki beharko dituzte obretan arituko diren pertsona guztiak. Horretaz gain, langileen kasuan kasuko itun sektorialek zehazten dituzten bizi eta istripu aseguruen eskakizunak bete beharko dituzte esleipendunak. Era berean, obrak egiten duten bitartean, enpresa azpikontratistek behar bezalako aseguru egokiak egin eta indarrean mantentzea esleipendunaren ardura izango da.

2.- Aurrekoa kontuan izanik, esleipendunak uko egiten dio inolako erantzukizunik eskatzeari erakunde kontratatzailearen aurka.

3.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratistak egindako aseguruen kopia edo egiaztagiria emango dio erakunde kontratatzaileareni, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, erakunde kontratatzailearen iritziz.

4.- Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, erakunde kontratatzaileak aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, erakunde kontratatzaileak eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratatzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, erakunde kontratatzaileak kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

5.- Aseguruen inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratistei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, erakunde kontratatzaileari eman beharko dizkio azalpenak.

6.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak erakunde kontratatzaileari jakinaraziko dio. Era berean, erakunde kontratatzaileak hala eskatzen baldin badio, kontratistak aseguruen kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio. Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

7.- Kontratuan azaltzen diren lanak egitearen ondorioz gerta litezkeen istripuak direla eta, esleipendunak ez dio erakunde kontratatzaileari inolako erantzukizunik eskatuko, ez ekonomikoa ez galerengatikoa, eta, hala dagokionean, erakunde kontratatzaileari kalte-ordaina eman beharko dio.

8.- Hirugarrenek erreklamazio edo galera handia, arazo, kalte edo lan istripu larria gertatuz gero, esleipendunak berehala jakinaraziko dio erakunde kontratatzaileari idatziz.

9.- Kontratistaren kargura izango diren arrisku, betebehar eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruen kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebehar eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruen zenbatekoetara mugatuko, erakunde kontratatzailearen edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

10.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

11.- Esleipendunak klausula edo atal honetan aipatzen dena aintzat hartzen ez badu, kontratua ez duela betetzen ulertuko da.

## 4.9 Lanen jabetza. Datu pertsonalen erabilera. Konfidentzialtasuna

i.- Egindako lanen jabetza

Erakunde kontratatzailearen jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabego industrial eta komertziala ere, Erakunde kontratatzailearen esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe Erakunde kontratatzaileak espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabegoari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabego intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek Erakunde kontratatzailearen esku utziko dute aipatutako jabego intelektual edo industriala.

Jabego intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak Erakunde kontratatzaileari esklusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta aldez aurretiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida esklusibotasunik gabe egin daiteke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitekeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela Erakunde kontratatzailearen baimenik gabe.

Kontratua indargabetzeko kausa hori gertatzekotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

ii.- Datu pertsonalen erabilera

Datu pertsonalen erabileratzat honako jarduera hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako araua hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eratutako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistaratzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:

   a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman

beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.

b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.

c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeko aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzeko egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.

6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, EEEk edo erakunde kontratatzaileak kontrolak egiteko eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

iii.- Konfidentzialtasuna

Informazio konfidentzialtzat joko da kontratistak eskuragarri izango duen informazio pertsonal, kontratuko, banketxe, tekniko edota komertzial oro, kontratatutako zerbitzua egiteko informazioa, hain zuzen ere.

Esleipendunak isiltasun profesionala urratzeagatik sortutako kalte-galerengatik kalte-ordaina eman beharko die EEEri, legeriaren arabera lizitatzaileari egotzi ahal zaizkion erantzukizunez gain

Kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hala badagokio, kontratistak dokumentuak eta kopiak itzuli egingo ditu, kontratuaren lanak amaitu eta gero, emango zaizkionak hala eskatzen badio.

**4.10 Lagapena eta azpikontratazioa**

a) Kontratuaren lagapenerako legezko eskakizunei dagokionez, TRSPKLren 226 artikuluan zehaztutakoa bete beharko da. Dena dela ere, erakunde kontratatzaileak aldez aurretik eta berariaz baimendu beharko du kontratuaren lagapena. Kontratua ezin izango da laga, berau esleitzeko arrazoi erabakigarriak jatorrizko kontratistaren gaitasun pertsonal edo teknikoak izanez gero.

b) Kontratistak azpikontratak egin nahi izanez gero, TRSPKLren 227 artikuluan zehazten diren xedapenak bete behar ditu. erakunde kontratatzaileari azpikontratu hori adierazten dion idatzian, aipatutako xedapen horiez gain, azpikontratua egikaritzeko baldintza teknikoak ere azaldu beharko dira.

Nolanahi ere, azpikontratazioek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

(i) Kontratistak aldez aurretik jakinarazi behar dizkio erakunde kontratatzaileari idatziz egin nahi dituen azpikontratu guztiak, azpikontratista bakoitzari lotutako kontratuaren aldea adieraziz.

(ii) Erakunde kontratatzaileak aldez aurretik onartu behar du.

Nolanahi ere, jakinarazitako azpikontratazioa ez onartzeko eskubidea bere gain hartzen du erakunde kontratatzaileak, baldin eta proposatutako azpikontrataren gaitasun teknikoa nahiko egiaztatuta ez badago, edo azpikontratua gauzatzeko baldintza teknikoak aski bermatuak ez badaude.

Azpikontratatuak jatorrizko kontratistaren mende geratuko dira eta jatorrizko kontratista hori izango da, erakunde kontratatzaileari dagokionez, Plegu honetan eta kontratuan zehazten diren betebeharren ardura izango duena.

**4.11 <u>Behin-behineko eta behin betiko hartzea</u>**
Behin-behineko jasotzeko izapideak abian jarriko dira esleipendunak kontratuaren arduradunari, erakunde kontratatzaileak hautatutakoari, honako hau jakinarazten dionean:

(i) Instalazioa **I. eranskinean** eta esleipendunaren eskaintzan adierazitakoaren arabera amaitu dela.
(ii) Akatsik aurkituz gero, den-denak konponduta daudela.
(iii) Indarrean dagoen legeriak eskatzen duen dokumentazio guztia prestatuta dagoela.
(iv) Behin-behineko instalazioak kendu direla eta lekua behar bezala garbitu dela.

Hamabost (15) eguneko epea igaro baino lehen, kontratuaren arduradunak obra aztertuko du eta egiaztatuko du obrak arau edo baldintza teknikoetan azaldutako klausuletan esaten dena betetzen dituela; baita eskaintzan eta <u>I. eranskinean</u> jasotzen dena ere.

Ikuskapena edo azterketa positiboa bada, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo du, ale bitan, eta erakunde kontratatzaileari eta esleipendunari bidaliko die kopia bana. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.

Kontratuan azaltzen diren lanetan kontratuaren arduradunak akatsik aurkituz gero, ordea, esleipendunari jakinaraziko dio eta honek hamabost (15) eguneko epean, gehienez ere, konpondu beharko lituzke akatsak.

Goraxeago adierazi den epean esleipendunak aipatutako akatsak konponduko balitu, kontratuaren arduradunak obra behin betiko jasotzeko akta egingo luke, ale bitan, eta erakunde kontratatzaileari eta esleipendunari bidaliko die kopia bana. Onarpen horrek izaera loteslea izango du berme-aldiak hasteko.

Prestazio akasdunei lotutako arazoak adierazitako epean konpondu ezean, erakunde kontratatzaileak bertan behera utz dezake kontratua eta kalte-ordainengatik eskabidea egin dezake. Esleipendunak ordura arte jasotako kopurua eta %20 gehiago izango da kalte-ordainaren zenbatekoa.

**4.12 <u>Hizkuntza baldintzak</u>**
Enpresa esleipendunak kontratuaren xedea diren ondasun eta produktuen dokumentazioa eta gidaliburuak EAEko hizkuntza ofizial bietan (gaztelania eta euskara) emango ditu. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean.

Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta b)

komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

**4.13 Kontratuaren arduraduna**

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, erakunde kontratatzaileak kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkaritzat aukeratzen duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenaz egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea.

Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenaz dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

**4.14 Kontratuaren iraungipena/deuseztapena**

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta TRSPKLen 223 artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

(i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, , erakunde kontratatzaileak egokitzat joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari, erakunde kontratatzaileak eskatu eta bere horrexetan gauzatutako lanak ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik , erakunde kontratatzaileari kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.

(ii) Kontratistaren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.

(iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero**,** erakunde kontratatzailea baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatuz edota lanak gauzatzen jarraituz, berez edo egokitzat jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratistaren kontura.

## 5. BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

**5.1 Epeak**

Kontrakoa adierazi ezean, plegu honetan azaltzen diren epe guztiak egun naturalei dagozkie.

**5.2 Aldagaien onarpena**

Plegu hionen karatularen **N Atalean** zehaztuko da aldagaiak onartzen diren al ez. Onartzen baldin badira, aldagaiek adierazi beharko dute zein elementuri eragiten dioten eskaintzaren barruan.

**5.3 Publizitatearen gastuak**

Lehiaketa honi lotutako publizitate gastu guztiak (hala badagokio, egunkarietan argitaratuko diren iragarkiak barne), enpresa esleipendunak ordainduko ditu, Plegu hionen karatularen **M Atalean** hala adierazten denean. Gastu horiek atal horretan zehaztuko den gehieneko zenbatekoa izango dute eta Erakunde Kontratatzaileak enpresa esleipendunari fakturatuko dizkio, kontratua formalizatu aurretik

# I. ERANSKINA
# ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN PLEGUA

# Requisitos técnicos suministro de energía eléctrica de emergencia CIC Energigune

## PROYECTO, DIRECCION DE OBRA, LEGALIZACIÓN, SUMINISTRO E INSTALACIÓN DEL GRUPO ELECTRÓGENO Y LOS EQUIPOS Y CANALIZACIONES ELÉCTRICAS


**1. INTRODUCCIÓN. .......... 2**
**2. CONDICIONES ACTUALES .......... 2**
**3. OBJETO DEL DOCUMENTO .......... 2**
**4. ALCANCE DEL SUMINISTRO .......... 2**
**5. DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS .......... 3**
5.1. GRUPO ELECTRÓGENO .......... 3
5.1.1. DIMENSIONADO .......... 3
5.1.2. CONSTRUCCIÓN .......... 3
5.1.3. MOTOR .......... 4
5.1.4. ALTERNADOR .......... 4
5.1.5. SISTEMA DE ARRANQUE .......... 4
5.1.6. DEPÓSITOS DE COMBUSTIBLE .......... 4
5.1.7. CONTROL Y REGULACIÓN .......... 5
5.1.8. ALARMAS Y TELEMANDOS .......... 6
5.1.9. REDES DE TIERRA .......... 7
5.1.10. ENSAYOS Y PRUEBAS .......... 7
5.2. SAI INDUSTRIAL .......... 7
5.2.1. CARACTERÍSTICAS .......... 8
5.2.2. ALARMAS Y TELEMANDOS .......... 9
5.2.3. BATERÍAS .......... 9
5.3. CUADROS ELÉCTRICOS .......... 9
5.3.1. CUADRO CONMUTACIÓN RED-GRUPOS .......... 11
5.3.2. CUADRO ACOMETIDA SAIS INDUSTRIALES .......... 11
5.3.3. PROTECCIÓN LÍNEA PRINCIPAL BT .......... 11
5.3.4. MODIFICACIONES .......... 11
5.4. CANALIZACIONES ELÉCTRICAS PREFABRICADAS Y CABLEADOS .......... 11
5.4.1. CANALIZACIONES ELÉCTRICAS PREFABRICADAS .......... 11
5.4.2. CABLEADOS .......... 13
5.4.3. MODIFICACION CONEXION SAIS ACTUALES .......... 14
5.5. MANTENIMIENTO PREVENTIVO .......... 14
5.6. OTRAS DISPOSICIONES .......... 14
**6. VALORACIÓN DE LOS TRABAJOS .......... 16**
**7. CONTENIDO DE LA PROPUESTA TÉCNICA .......... 17**
**8. AGENTES Y COORDINACIÓN .......... 17**
**9. DATOS DE PARTIDA Y ACCESO A LAS INSTALACIONES .......... 17**
**10. PLAZO .......... 18**

## 1. Introducción.

El CIC Energigune es un centro dedicado a la investigación y desarrollo de tecnologías relacionadas con la energía. Las instalaciones cuentan con puestos de trabajo para realizar la investigación teórica, así como con laboratorios de alta tecnología para la experimentación, que en algunos casos puede tener una duración prolongada. La interrupción de estos experimentos por falta de fluido eléctrico supone grandes pérdidas de económicas y de tiempo. Por otro lado, las perturbaciones de red tienen altas probabilidades de dañar los sensibles equipamientos de los laboratorios.

Con objeto de evitar que, bien paradas técnicas programadas (revisión anual del transformador), o bien fallos en la red, provoquen paros intempestivos en la actividad productiva del edificio, y además conseguir un aislamiento frente a las perturbaciones de red, se ha decidido incorporar una línea de suministro eléctrico de emergencia que ofrezca robustez y fiabilidad de funcionamiento, de manera que permita mantener la actividad de manera continua, 24h/365 días. Este suministro alternativo está basado en soluciones contrastadas, como son la combinación de SAI industrial y grupos electrógenos diesel.

## 2. Condiciones actuales

La electricidad del edificio se suministra en 30 kV desde los CT Amaritu y CT Lejarza provenientes de la subestación de GAMARRA-Villareal.

Un transformador de 1.000 kVA reduce la tensión a 400 V dentro del edificio. Dos SAIs de 120 kVA en configuración 1+1 alimentan las tomas informáticas, de telecomunicaciones, y cierta maquinaria de laboratorios.

La distribución actual del edificio impide la separación de los servicios en críticos y no-críticos. Por ello el suministro de emergencia se dimensiona para alimentar a la instalación eléctrica completa.

Actualmente el edificio requiere puntas de 200 kW. Se espera que a corto plazo la demanda ascienda a 350 kW de punta; El suministro máximo de 1.000 kVA podría alcanzarse en ampliaciones futuras a determinar.

Los elementos del suministro de emergencia se ubicarán en la espina central de instalaciones del edificio, en coherencia con el diseño arquitectónico del mismo.

## 3. Objeto del documento

En este documento se describen con detalle los requisitos técnicos de la instalación, así como los condicionantes particulares que regirán su contratación.

## 4. Alcance del suministro

El alcance del suministro es el siguiente:

- Replanteo y revisión de la instalación a ejecutar, en función de los equipos a implantar. Redacción de proyecto técnico para legalización del proyecto ante industria. Visado en colegio oficial.
- Dirección de obra y suscripción del certificado final de obra según los requerimientos del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz y la normativa vigente. Visado en colegio oficial.

- Suministro, montaje, instalación y puesta en marcha, llave en mano, de la instalación eléctrica, desde la recepción de los equipos y materiales y almacenamiento hasta su instalación en el lugar previsto en el proyecto.
- Documentación de todos los equipos, materiales suministrados e instalaciones realizadas en soporte papel y formato electrónico. Formación al personal que designe la propiedad.
- Mantenimiento preventivo del sistema de emergencia en su conjunto, durante el plazo de dos años.

## 5. Descripción de los trabajos

Se requiere la instalación de un SAI industrial, un Cuadro de Conmutación, y la conexión de estos con el Grupo Electrógeno objeto de este suministro, y el Cuadro General de Baja Tensión existente, así como la instalación y configuración de todo el cableado y elementos necesarios para la gestión del suministro de emergencia.

A continuación se describen los trabajos a realizar y equipos a implantar.

### 5.1. GRUPO ELECTRÓGENO

Se requiere el suministro, montaje e instalación de manera estacionaria de un Grupo Electrógeno (GE) de 700 kVAs (funcionamiento en Emergencia) en el recinto establecido para tal fin. El GE suministrará la energía eléctrica en BT al edificio en caso de fallo de red o transformador, a través de un SAI industrial de 500-600 kW. Este último garantizará la estabilidad del suministro, evitando los pasos por 0 de las conmutaciones. El GE deberá ser compatible con el SAI, además de capaz de proporcionar su potencia nominal en el modo de trabajo stand by/emergencia.

El GE se conectará directamente a la red eléctrica del edificio en caso de fallo del SAI.

El GE deberá ser capaz de trabajar en paralelo con otro grupo de iguales características (previsión a futuro).

Todos y cada uno de los equipos objeto del contrato, deberán cumplir con las siguientes características técnicas mínimas:

#### 5.1.1. DIMENSIONADO

La potencia final del GE será la requerida por el fabricante del SAI Industrial, para que ambos sean compatibles a plena carga. Esta no será inferior a 560 kW en modo de trabajo emergencia (700 kVAs con factor de potencia 0,8).

#### 5.1.2. CONSTRUCCIÓN

El GE estará formado por un motor diesel especial para esta aplicación y un generador de corriente alterna con neutro, formando ambos una unidad compacta en ejecución monobloque, con los elementos necesarios para su correcto funcionamiento.

El GE se montará sobre una bancada de perfiles metálicos y amortiguadores (silent blocks) para evitar la transmisión de ruidos y vibraciones. Dispondrá de bandeja de recogida de posibles derrames de aceite del motor.

Se dispondrá de una salida de gases de combustión o tubo de escape en disposición optima acorde al lugar designado de proyecto teniendo en cuenta las normativas que le sean de aplicación.

El grupo electrógeno admitirá una sobrecarga de emergencia de al menos un 10% sobre la potencia continua del equipo durante al menos 1 hora.

El GE se suministrará dentro de un cabinado metálico insonorizado, con las compartimentaciones y puertas necesarias para realizar un adecuado mantenimiento del mismo.

#### 5.1.3. MOTOR

El motor del GE será diesel, especial para grupo electrógeno, regulación electrónica de velocidad, ciclo de trabajo 4 tiempos, a 1.500 rpm, con refrigeración por agua.

El arranque será eléctrico, se realizará mediante un sistema de baterías, cargador de las mismas y motor eléctrico con las características mínimas que aseguren su correcto funcionamiento. En cualquier caso las baterías a plena carga deberán ser capaces de soportar 10 intentos de arranque.

El motor deberá ser capaz de funcionar en un rango de temperaturas comprendido entre -20°C y +50°C, así como soportar una sobrecarga de un 10% durante 1 hora.

#### 5.1.4. ALTERNADOR

El alternador tendrá una tensión de salida alterna trifásica 400V/50 Hz, con una variación máxima a plena carga de un ±1%. Será autorregulado y autoexcitado, contará con un imán permanente sin escobillas, con regulador de tensión electrónica.

Contará con aislamiento clase H y elevación de temperatura clase F.

Dispondrá de interruptor automático tetrapolar con bobina de disparo y relé de protección de fallo a tierra.

Al igual que el motor deberá ser capaz de soportar una sobrecarga de un 10% durante 1 hora.

#### 5.1.5. SISTEMA DE ARRANQUE

El GE contará con baterías, cargador de las mismas y motor eléctrico para su arranque con las características mínimas que aseguren su correcto funcionamiento.

En cualquier caso las baterías a plena carga deberán ser capaces de soportar 10 intentos de arranque.

#### 5.1.6. DEPÓSITOS DE COMBUSTIBLE

